

## **Irungo udaltzaingo lanpostuen hizkuntza-eskakizunei buruzko adierazpena**

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko 3. Atalak Irungo udaltzaingo lanpostuen hizkuntza-eskakizunei buruz emaniko epaiak kezka eta egoneza sortu ditu herritarrak ordezkatzeko dituen Legebiltzar honetan.

Eusko Legebiltzarrean ordezkariak dugun EH Bildu, ElkarrekinPodemos-IU eta Eusko Abertzaleak talde parlamentarioak, bat egiten dugu EAEko herri erakunde guztiek euskara normalizatzeko egiten ari diren lan eskergarekin, euskarak herritarren egunerokoan dagokion lekua har dezan eta herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatu daitezzen.

Hori helburu hartuta, Irungo Udalerri babes osoa eskaini nahi diogu eta EAEko herri-administrazio orok lanpostu publikoen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasunak ezartzeko duen legezko zilegitasuna eta eskumena aitortzen dizkiogu, herritarren hizkuntza eskubideak erdigunean jarrita.

Azken ia 25 urteotan indarrean egon den Euskal Autonomia Elkartearen herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua giltzarri izan da sektore publikoan euskararen normalizazioa sustatzeko eta herri-langileen hizkuntza gaitasunean nabarmen aurrera egiteko.

Kezka eragin digu Auzitegi Nagusiaren epaiak, kolokan jar dezakeelako azken hamarkadetan EAEko sektore publikoan euskararen normalizazioan aurrera egiteko izan dugun marko juridikoa, eredugarria eta babes handikoa euskal gizartearen.

Kezka eta haserrea, hainbat eta hainbat Udalerri eta herritarrek, urteetan egindako lana hankaz gora jar dezakeelako.

EAJ-PNV

EH BILDU

ELKARREKIN PODEMOS-IU

Vitoria-Gasteiz, 2021ko ekainaren 3a